



Arduradunak

Fabienne Feutry & Noëlle Bru
fabienne.feutry@univ-pau.fr

Formakuntza nola eta nun iraganen den

- **Hautagaigoen jakinaraztea** : urtarrilaren 1tik apirilaren 15ra dosier bat galdetuz eta itzuliz helbide huntara :
DUTransitionAgroecologiquePaysanne@univ-pau.fr
- **Erakaskuntza orenak** : 350 + **Aplikazio Proiektua** : 300
- **Egutegia eta maiztasuna** : webgunean den egutegiaren arabera
<http://formation.univ-pau.fr/du-agroecologie>
- **Formakuntza guneak** : Angelun Montauryko unibertsitatean, eta bertze lekuetan, haietan Euskal Herri barnealdea

Accès à la formation

Hastapeneko formakuntzan eta formakuntza jarraikian

- Unibertsitate diploma dagokie ofiziokoei, lanean ari edo ez, laborantza agroekologikora iragaitean parte hartzen duten guziei (laborariak, laborantza ganbaretan, garapen elkarteetan, herriko etxetan, herri elkargoetan, departamenduetan, eskualdeetan, banketxeetan, ikastetxeetan diren pertsoneri.
- Unibertsitate diploma idekia da baxotik lekora gutinenez 2 urteetako ageria egiaztatzen duten presuna guziei.
- Ageri hori ez dutenak formakuntzarako sarbidea ukan dezakete batzorde pedagogikoaren ganik, hunekin mintzatu ondoren.

Harremanak

UNIVERSITÉ DE PAU ET DES
PAYS DE L'ADOUR

Collège STEE
*Sciences et Technologies pour
l'Énergie et l'Environnement*

1 Allée du Parc de Montaury
Bâtiment1 - 64600 ANGLET

05 59 57 44 01

scolarite.sciences-anglet@
univ-pau.fr

[http://formation.univ-pau.fr/
du-agroecologie](http://formation.univ-pau.fr/du-agroecologie)

**Prezioak, aintzinkondutak
eta finatzamendutak**

**Service commun de la Formation
Continue - FOR.CO**

accueil.forco@univ-pau.fr
05 59 40 78 88

DU
UNIBERTSITATE
DIPLOMA

Laborantza agroekologikora iragaitea



UNIVERSITÉ
DE PAU ET DES
PAYS DE L'ADOUR
COLLÈGE STEE

<http://formation.univ-pau.fr/du-agroecologie>

Helburua

Laborantza agroekologikora iragaiteko lagungarri izanen diren jakitatea, gogoetagai eta tresnen biltzea.

Azken denbora hauetan, kasik denak agroekologiaz mintzo dira. Hain zuzen formakuntza hunen xedea da ekartzea eskualdeetako lur jakintza eta ekologiari lotua den erakaskuntza berriari buruzko ikuspegi orokor bat, bainan aldi berean arlo asko hunkiz (ekonomikoa, kulturala, soziala...)

Idekitzen dituen ogoetabideetatik haratago, formakuntza hunek obratze alde bat ere badauka. Laborantzako agroekologikora iragaite egitasmoa eraikitzen eta gauzatzen, ekoizpen modu batzuetan ari direnak lagunduko ditu. Bai eta ere hortartzeko beste batzu mail ezberdinetan (garapena, formakuntza, finantza arloak) lagundu behar dituzten presunak.

Formakuntzak ekar dezakena

- Irakaskuntzaren denbora erdia segurtatuko dute sail berezituetan lanean ari direnen mintzalariek.
- Laborantza agroekologikoaren sailean lanean ari diren irakasle eta ikerlari ikastetxe eta unibertsitate ezberdinetatik parte hartuko dute.
- Irakaskuntzak fagoratuko ditu trukadak, esperientzia joan-etorriak (mahain-inguruak,bisitak...), irakasgaien arteko kurutzamenduak eta lurralde ezberdinekiko loturak.
- Aplikazio proiektuari esker bildu gaitasunen gaineko estimatzea.
- Mugaz bertzaldekoei ere idekia den formakuntza bat.

Aplikazio proiektua (300h)

Aplikazio proiektua kokatu behar da laborantza ekologikora iragaiteko bidean. Formakuntzaren atal nagusi horrek :

- Hautagaiari ahalbidetuko dio formakuntzako mintzalari guziek eman jakitate, bizipen eta tresnen baliatzeko gai izaitzea.
- Estimatzeko lana errextuko du diploma eskuratzeko unean.
- Bakotxak bere aplikazio proiektua ukan dezake, edo bestenaz izaiten ahal da berak lan egiten duen egiturarena.

Formakuntzaren egitaraua

6 moduluetan (350 h) eta konpetentzien ebaluaketa aplikazio proiektu baten bitartez (300 h)

Konpetenziak 3 bloketan

- **Laborantza agroekologikora iragaiteko testuinguruak**

- **Laborantza ekologikora iragaite egitasmoen kudeantzara nola hurbildu**

- **Iragaite ezberdinak agronomia eta ekologia ikuspegietatik**

6 Irakaskuntza gai

- **UE 1 - 20 h**
Munduko laborantza ereduen sortzetik laborantza agroekologikora iragaite denboretara

- **UE 2 - 50 h**
Laborantza eta elikadura politikak : eskualde ezberdinekin elkarlana

- **UE 3 - 40 h**
Eskualdeak eta elikadura moldeak

- **UE 4 - 80h**
Laborantza agroekologikora iragaiteari lotuak diren egitasmoen ulertzeko eta arautzeko moldeak

- **UE 5 - 60h**
Laborantza : izadiarekilako lotura

- **UE 6 - 100h**
Oinarri teknikoak agroekologia arloan